



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

EUDEL ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIA EUROPAKO KONTSEILUAREKIN ELKARLANEAN ARI DIRA, TOKIKO FINANTZAK EBALUATZEKO ADIERAZLE-SISTEMA BAT PRESTATZEKO

- EUDELen eta Foru Aldundiaren lankidetzak hitzarmenari esker, Bizkaiko 5 udalek proba pilotu bat egin ahal izan dute, udal ekonomiaren eta aurrekontuen inguruko informazioari buruzko 80 adierazlerekin.
- Europako Kontseiluko hainbat aditu proiektua gainbegiratzen ari dira; egunotan, Bilbon daude, proiektuaren nondik norakoen berri izateko, EUDELen eta parte hartzen duten udalen eskutik.
- Tresna proba aldian dago oraindik ere; eta Europako Kontseiluaren metodologian oinarrituta, Euskadiko udalentzat egindako egokitzapena da.

Bilbon, 2015eko urriaren 27an. Gaur, lan jardunaldia egiten ari dira EUDELen egoitzan, Europako Kontseiluko adituen eta Galdakao, Ermua, Basauri, Getxo eta Bilboko udalen artean, finantza-baliabideen eta finantza eta aurrekontu kudeaketaren prozedurei buruzko adierazleen tresna berriaren proba-prozesua (pilotu fasea) aztertzeke.

Udalen ordezkari gisa, bertan izan dira Galdakako alkate **Ibon Uribe**, eta Basauri, Ermua, Getxo eta Bilboko ordezkari politikoak. **Ibone Bengoetxeak**, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak, ireki du jardunaldia, Jesus García Larraganekin, Saileko zuzendariarekin, batera.

Euskadiko udalentzako tresna berri honek Europako Kontseiluaren bermea du. Izan ere, adierazleak prestatzen lagundu du, Europako **‘Toolkit Local Finance Benchmarking’** (*tokiko finantzak erkatzeke ebaluazio-tresna*) izeneko adierazle-metodologia eredu gisa eskainiz.

80 ADIERAZLEKO ETA 5 ATALEKO TAULA

Atala	lido estrategikoa	Adierazle zk.
I. Baliabideei buruzko politikak	<i>Finantza baliabideen benchmarking-a:</i> 1. ardatza. Tokiko erakunde baliabide-politikaren printzipio nagusiak	7
II. Zergak eta Tasak	<i>Finantza baliabideen benchmarking-a:</i> 2. ardatza. Tokiko esparruan ezartzea 3. ardatza. Tasak, prezioak eta askotariko diru-sarrerak	24
III. Inbertsioen eta Ondarearen finantzaketa	<i>Finantza baliabideen benchmarking-a:</i> 4. ardatza. Kapitalaren aurrekontuaren finantzaketa 5. ardatza. Tokiko ondarea	13
IV. Aurrekontu plangintza	<i>Finantza eta aurrekontu kudeaketaren benchmarking-a:</i> 1. ardatza. Aurrekontu eta baliabide plangintza kaudimenduna	21
V. Aurrekontuaren betearazpena, gainbegiraketa eta kontrola	<i>Finantza eta aurrekontu kudeaketaren benchmarking-a:</i> 2. ardatza. Aurrekontu doiketen eta betearazpenaren arau bereziak 3. ardatza. Kontrol berezia, jardueren gainbegiraketa	15

Bizkaiko Foru Aldundia-EUDEL hitzarmena

Joan den ekainean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartek konpromisoa berretsi zuten, Bizkaiko udalen modernizazio, gardentasun eta Gobernu Onerako lankidetzan jarraitzeko, udal ekonomiaren eta aurrekontuaren inguruko informazioari buruzko adierazleen sistema oso bat sortuta.

Hitzarmen horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak, Erakunde Harremanen Zuzendaritzaren bitartez, eta EUDELe konpromisoa hartu zuten **hausnarketarako esparru bateratua** sortzeko, udal-adierazleen sistema bat koordinatuta, lurraldeko udaletan **ekonomiari eta aurrekontuei buruzko informazioaren kudeaketa eta komunikazioa hobetzen** laguntzeko.